

DEABRUAREN ABOKATUA

SARA COZAR

Karteleran zein bestela: hil arte bizi.

| SUSTRAI COLINA |
Argazkia: Sara Cozarrek utzia



«Entretanimendu hutsari kontra egin behar diogu»

Urte osoan zine-aretoak hutsik eta denak Zinemaldiaren zain!

Zinera joaten ez den jendea zinemaldiko ilara amaigabeetan ikustean auzo-lotsa sentitzen dut. Folklorearen festa, ka'ean ez daikit zein famatu fusteko aukera... Bakoiz tzak egin dezala nahi duena, baina koheren- ziazari hartzeko leziorik eman gabe.

Donostian ez dagoela kultur mugimendurik diote progr. guai koherenteeak.

Ez da izango Alde Zaharrean tragoak har- tzea gehiagu: gustatzen zaigula eta, gauer- dian, txispatuta, "Donostian ez dago ezer!" haserretzen garra? Ba bazegoen, baina gu pintxoak jaten geunden!

ETB1eko fikzio eskaintza oparorekin entre- tenitzen girela esan behar nuzin, baina...

Batekik ETB1 fikzioa behar du, eta beste- tek beste mota bateko fikzioa. Dena oso garbia, txuria, eta puritana iruditzen zait. Zergatik ez *Sex and the city* bezalako telesail bat Donostian? Amonci izugarri gustatuko litzaizke!

Edertasun kanonen diktaduran jausten ez garen bitartean...

Ez dut ustotzen itsusia edo polita izatea denik kontua, zera berezi hori edukitzea baizik. Begira Carmen Machi, ez da bereziki ede- rra, baina bere bizitza osoan egin du lan, aktore bikaina delako. Horixe da irauteko dugun euskarri bakarra.

Antzerkiak Euskal Herrian irauteko duen euska- ria komedia den bezalaxe?

Euskal Herrian ez dago antzerkiarako ohitura handirik eta jendeak komediak nahi ditu, barre egin, gutxi pentsatu. Hori kultura programatze- ko dirurik ez dagoela ghituz gero tarte txi- da geratzen da, baina entretenimendu hutsari kontra egin behar diogu.

Lehenbizi, esplikatuz jendeari zuen lanbidea ez dela farandula bakarrik!

Zergatik begiratzen diogu oker farandulari? Noiz ohartuko gara antzerkiaren bakoitzaren atzetik dagoen larraz? Ulertu nezake fabrikari zortzi orduz lan egiten duenarentzat munda eroa izatea gurea, baina agian niretzat harena eroagoa da.

Ez didazu botako purrustadarik zuen lanbidearen prekarizazio eta segurtasun ezagatik?

B plan batekin izugarri lasaitzen naiz eta ez naiz nire burua aktore lanetan ez bada inon ikusten ez duen horietakoa. Ate antzara daukat irekitzeko. Hori bai, gehien gustatzen zaidana txiki arte ez nituzke ireki nahi.

Lasai, egiten duzuna egiten duzula, Goenkaleko Mimi izango zara beti.

Putaketa litzateke ez banu beste ezer egin, baina beste erregistro asko lantzeko aukera izan da'anez, arazorik ez. Gainera, Mimiari kariñoa diot, nahiz eta azkenez ez nekien zer pentsatzen zuen berak eta zer nik. ■



ASTEKO GAIA

ESKIZOFRENIA

Ezjakintasunak estigmatizatuta

Ehun lagunetik bat eskizofrenikoa dela diote estatistikak. Horietarik batzuek lana dute, harremanak, hainbestean bizi dira botikei esker. Beste zenbaitek zori latzagoari egin behar dio aurre. Gaitzak mendean hartuta dituen gaixoen egunerokoa konprenitzeko saio xumea duzu erreportaje hau.


| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

GAITZ MENTAL guztiak zaizkigu arrotzak. Normalizat jotzen ez denak ernegatu egiten gaitu. Ez jakintasunez, gaitzetsi egiten ditugu eskuarki. Ez da, alabaina, buru nahasmen askorik izango eskizofrenia baino konpreni-gaitzagorik. Ilitza apatu orduko, muturreko bikoizte artean tirabiran den eroa imajinatu ko du gehiengoak, zintzo eta halaber gaitzo, zentzudun eta hego haizeak jora, zuzen eta oker, bereizi ezinezak. Besteela esanda, kaiga literariotik urran legokoen Jessyll doktorea, edaberik gabe ere ezustear transformatzen dena. Edo ahotsak entzuten dituen izaki pitzatuak, inoizko krimenik lagarrietarako jera izan dezakeena. Errealitatea, ordea, funts eskasako aurreiritzi horiek ditona baino arrot konplexuagoa da.

Eskizofrenikoez ez dute norotasun bikoiztirik, ez dituzte ezinbestean ahotsak entzuten, eta, lupa mediatikotik handietsitako kasuak alde batera utzita, ez dira oro har arrisku tsuak, beren buruaren kontra ez bada. Bitik bat, bere buruaz beste egiten saiatuko da.

Inor guxi mintzo da eskizofreniaz. Ez gaitzork, ez haiz sanderik. Izan ere, zein elkarriketatari sar liteke "eskizofrenia krisiak izaten ditut" edo "anai eskizofrenikoa da" bezalako datuak, ezinbesteko aitortza toman ez bada. Zein hizketa klasetan, zein mailatan. Uste baino aruntagoa da, haatik. Uste baino gertuago dago gugandik, ekunetik batek bizi bari bere batan.

Baina zer da zehazki eskizofrenia? Ez dago adostasun erabatekorik, definizioari dagokionez. Ez dago diagnostiko ziurra



Eskizofrenia eta sormena erlazionatzen dituzten ikerlan ugari dago. Gaitz honek espresio artistikoa areagotzea dakarkie pintore askori. Beste askori, berriz, alderantziz eragiten die, ahalmen hori guztiz ezabatuz. Irudian, William Kurelek kanadarraren *The Maze* obra (1953) (labirintoa), bere arazo psikikoei eta pentsamendu tristeei eskainia.

kolpe bakarrean egiten lagunduko lukeen sintoma sorta garbi, zehatz eta apartekotik, gaitzari bere-bereza zaiotik. Horren ordez, zentzudun luzea osatzen duten ezaugarrietatik batzuk izango ditu gaixo diagnostikatuak. Eta zergatik horiek eta ez beste batzuk, ez da beharbaia inoiz jakingo. Esku-liburu psikiatriko askotan irazkar liteke, bestalaxe, esklusioz diagnostikatzen dela, epe luze xamarra behar dela, erraz sei hilabete, medikutan hasi eta ondorio horretara heldu artean. Epe horre

ESKIZOFRENIA

Eskizofrenia sintomak

Sintoma positiboak

Ez, hain justu, positibotzat jo daitezkeelako. Pertsonak normalean izaten ez dituen esperientziak eta portaera agertzen ditu. Eskizofreniaren markatzaletzat jotzen dira.

HALUZINAZIOAK

Zentzumenen nahasmeneak dira, gaixorantz gurtz erreala: ahotsak entzutea (denetan arruntena), usain arretzak sentitzea, gorputzean adarretak sumatzea...

ELDARNIOAK, DELIRIUMAK

Uste faltsuak. Ideia erreala eta errealakorrak dira gaixorantz. Esate baterako, Jainkoak hautatua edo odol urdinekoak direla sinestea. Edo eraso terroristaren errudun dela uste izatea, pentsamenduak besteren bestek kontrolatu nahi dizkiola sinestea...

Sintoma kognitiboak

Arreta mantentzeko zailtasuna, kontzentrazio eta memoria arazoak.

Sintoma negatiboak



Normalean dituen jehakibideen aldaketak, jardunaren murrizketa.

Motibazio eza, axolagabetasun emozionala, isolamendua, iniziatiba eta bat-bateko tasuna galtzea, barremanerako eta komunikaziorako arazoak, hizketa mugatu eta saltokaketa, pentsamendu nahasiak, loturarik gabekoak. Sintoma negatibo hauek direla kausa, sarritan alferak edo axolagabeak izatea leporatzen zaie eskizofrenikoek.

tan, gainera, eldarnioak, delirioak eta haluzinazioak eragin ditzaketen beste hainbat kausa eliminatu behar dira hasteko eta behin. Besteak beste, tumorea, plaken esklerosia, depresio psikotikoa, egoera maniatikoa edota nahasmendu bipolarra.

Izatez, zaku zabalak da eskizofrenia. Azpi-mulzo pareak baino gehiago eta azalpen argirik ez duten arazo psikotiko franko hartzen ditu bere baitan; kasu, jokoera, patroia eta istorio mordoa: antzerrian ere egiten ez zaionetik hasi eta, errealitatearekiko lotura galdua, gizarteari bizkar emanda bizirauten duenera arteko aldaera guztiak. Hona hemen adibide bat, ezer orokortzeko asmorik ez luseana.

Protagonistak, dei diezaiozun Xabier, 18 urte zituen lehen krisiak ezgaita zenean. 43 ditu orain. "Oso gogoan dut egun hura", ezaldu cigu harer. arreba gazteagoak, ARGIArako narraztaile laretan jarrita. "Sar inazioetan izan zen, Rock Radical Vasco deizko garai hura bete-betean bizi genuela. Anaia zaharrona zeharo kezkatuta heldu zen etxera, Xabierren portaezagatik harrituta". Bi anaiek urtebeteko aldea dute eta lagun-talde berekoak dira. "Hark botatako hitz zehatzak erabiliz, 'mongolitoa' balitz bezala gelditu omen zen, hantxe plazan,



festaren erdian. Hardik gurzira gure izaba erzaina eturri zitzagun etxera, psikologo bat lagun zuela. Niri, 14 bat arte izango nituen orduan, etxe horretatik ateratzea komeni zitzaidala esan ziguten".

Arreba -dei diezaiozun Idoia, kolonietara bidali zuten, beraz. Xabierrek, berriz, Donostiako Ospitale Psikiatrikoan pasatu behar izan zuen bolada. Hardik atxarata, Gizakia Helburu erakun

dera jo zuer, ordako usteen arabera, bere nahasmenduaren kausa droga zaletasuna izango zela. "Izan ere, asko hartzen zuten anaiak -jarraitu dio kontasotari Idoiak -, eta oraindik ere horixe du bizi-poza". Hala ere, inortxok ere ez zuen panorama garbi, "psikotika eta antzekoren bat ere ikusi nuen paperen batean idatzita. Ni, harr: eta zur, izen bereko film burutik ezin kendurik".

Urte batzuetan ziklikoa bilakatu zen Xabierren portaera. Udazkenean Gizakia Helburuko programari hartzen zion. Negua nahiko txulua pasatzen zuen, tarteka lana ere eginez. Sanferminetan, ordea, berriro hasten ziren konerriak. Zeharo zoratuta itzultzen omen zen handik, eta halaxe pasatzen omen zuen udaldia.

“Egoera erabat zailtzen zenean, okerrak egiten hasten zenean, bidali egin behar izaten genuen erretik. Esate baterako, labarra hartzen zenean. Ez genuen uste gure kontra hasiko zenik, baina egoera bera belcugarria zen. Krisialdi horietan geu ginen gaitzok harantzat, bere etxe-koak, eta bereziki ama. Amaren kontra zuen dena, sekulako obsesioa. Amak gehiago ezin zenean alde egiteko eskatzen genion. Aita baztertu egin zen sparka, arduratzeari utzi zion. Oso zaila da horrelako pertsona batekin bizitzea, oso maitea izanagatik ere. ‘Ezin diagu aguantatu, ingrosatu egin behar duk, ospitalera joan behar duk’ esaten genion”.

Droga munduan dezentetatu zen Xabier. Gehientsuenak kontsumitu zituen, Ideiaren hitzetan, “heroina, speeda, kokaina konturik ez diot erretzen, eta porroak. Azken hauek oso txarrak zirela esaten zigun”. Ospitalean ingrosatzen zutenean, ordea, abstinentsia sindromeak ez zituen aurkitzen.

Gaitza konprenitzen hasi zirenekoa

Behin, Marokora haxix bila joan eta amaibizina ikusi zuela esanez heldu zen handik bueltan. Odol urdinekoa zela ere esan izan zuen gerora, krisialdi batean. Enko Aritzaren oinordea zela, eta prest agertzen zen gainera, frogatzeko. Esate baterako, eskurritzean ehakia eginda, odol urdineko zedin, odol urdinekoa zela ikus zezaten onokoei. Garai hartan, Donostiako Ospitale Psikiatrikoan ez ezik, Arrasatekoan ere ingrosatu zuten. Idoiak gogoan duenez, orduan hasi zitzaizkien eskizofrenia sipa-

Zenbait datu

- Kultura, klima eta talde etniko guztietan dago eskizofrenia.
- Kasu gehienak nerabezaoren azken fasean eta heldutasunaren hasieran diagnostikatzen dira. 16 eta 25 urteen artean.
- Gizasemeak gazteagotan jotzen ditu emakumezkoak baino, eta gogorrago. Zergatiak ez daude garbi.
- Eskizofrenia garatzeko arriskuaren atzean herentzia genetikoa dago. Dena den, joera genetiko horri estres maila handia gehitu behar zaio ezinbestean. Eskema genetiko erabat garbia izan gabe estres maila handia jasan duenak errezago du eskizofrenia garatzea, genetikoki joera handikoa izan baina kalako estresik jasan behar izan ez duenak baino. Estres hori bizitzako murrak eragina da. Senide baten heriotzak, lanik gabe gelditzeak, ezkontzeak, gaisoaldizk, haur baten jaiotzak... Gertaera eta sententzio ugariak eragotzi dezakete estres hori.
- Ikerketen arabera, haxixa errez gero, sei aldiz handiagoa da eskizofrenia garatzeko aukera. Altxa, eskizofreniak jotako askok alkoñola, haxixa, amfetaminak edota kokaina kontsumitzen dute gaitzak eragiten dizkien sintomak eta sentipenak, hala nola ezinegona edo depresioa, apaltzen dituztelakoan. Momentua pasata, ordea, are sakonagoa da arniltzea.
- Haurdunaldiko eta erditze momentuko eragozpenek eskizofrenia garatzeko arriskua areagotzen dutela sustatzen da.
- Lehen antipsikotikoa 1950eko hamarkadan ezarri zuten. Antipsikotikoak sintoma positiboak kontrolatzen du eragina, eta garroer. %70-80ri on egiten dio. Alabaina, hainbat egun behar dira efektua egiten hasteko.
- Yoga, meditazioak eta kirolak mesede egiten dute.
- Eskizofrenikoek, Loikien eraginez sarritan, gizentasun eta diabeto arazoak izaten dituzte. Baita odol tentsio altua, bihotzekoak eta arnas hartzeko arazo kronikoak ere. Bestalde, asko erretzeko joera erakusten dute.

tzen. “Drogadikzioa beste plano batean gelditu zen. Anaia zoratuta zegoela esaten hasi zitzaizkigun, eta onartu egin behar genuela bere eromera”.

Gasteiz
 Liburu azoka iraiaren 21etik irriaren 7ra, Gasteiz Hiribidean
EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

ESKIZOFRENIA

Zaila da hori, ordea. Icoiaren aza-pena baliatuz, "gaixo dagoen pertsona: begiratzen zaioncan, pertsona bera da osotasuna, gaixotasuna ondoan duen zerbaite da. Pertsona alde batek eta grepa besteak. Gaixoa batetik, eta inbiziak besteak. Guk Xabier eta gaixotasuna bat eginda onartu behar genituen, berriz izateak bereizi ezin dira bezala.

IRATI QUEREJETA / ESKIZOFRENIA



IMANOL QUEREJETA AYERBE

DONOSTIAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOKO ZERBITZU PSIKIATRIKOKO BURUA

«Gaixoa tratatzean sortzen den arazo nabarmenena sindrome metabolikoa da»

Konplikatuak dirudi eskizofrenia diagnostikatzea. Prozesu luze baten ondoren heltzen da. Bestalde, zaku zabalaren antza duen, mota askotako sintomak eta ondorioak hartzen ditu bere baitan. Hala da?

Eskizofrenia diagnostikatzeko irizpide kliniko batzuk erabiltzen dira eta ez da hain zaila gaur egun.

Diagnostikoa egiteko garaian, zer da zuentzat zailena? Oro har, zein faseetan heltzen da pazienteak zuen gana?

Batzuetan zeharo jota heltzen zaizkigu. Hain gaixo, ezen ez baita posible harekin hitz egitea. Eta geure fonendoskopioa, nolabait esatarran, elkarriketa da justuki.

Diagnostikoa garbi dagoenean, zer da zailena pazientearekiko, pazientearen familia eta inguruarekiko?

Dena. Tratamendu guztietan ikuspegi medikoak, psikologikoa, familiarrak eta sozialak lotu behar dituzte, eta atal jakointzak bere zailtasunak ditu.

Zer da eskizofrenia duten pazienteen artean, gehien zoratzen edo aztoratzen dituen sintoma? Zer gomendio ematen duzue?

Eskizofrenia oso gaitz larria da eta dena aztoratzen du, bentsamendua, pertzepzioa, borondatea eta harremanak. Gaitz honek aipatu

dituzten ikuspegiak erasotzen ditu eta derak tratatu behar dira.

Bestalde, gaixoak normalean ez dira gertatzen ari zaiezen jabetzen. Ez dute horren kontzientziarik, eta ez dira konturatzen bizi dutena gaixotasunaren ondorio dela.

Tratamendu osoa hartu behar du, medikazioa, psikoheziketeta, familiako en leguntza eta errehabilitazioa.

Zergatik dago hain estigmatizatuta gaitz hau?

Ezjakintasunagatik. Baina nahas-mendu hauen sustrai biologiko eta psikologikoak orain dela 50 edo 60 urte baino hobeto ezagutzen ditugu.

Besteak beste, antipsikotikoak ematen zaizkio pazienteari, sintomak apaltzeko. Antza denez, sendabiderik ez da oraino. Bestalde, botika hauen albo kalteak handiak dira eta pazienteek sarritan hartzeari uzten diote, eta horren ondorioz hondoratu egiten dira berriro ere. Zer diozu?

Egia esateko, gaur egungo botikak askoz ere ziurragoak dira. Hala ere, da ikusgaitz arazo nabarmenena sindrome metabolikoa da. Alegia, gaixoak obesitatea, diabetesa, hiperkolesterolemia edota hipertrigliceridemia garatzen ditu. Haei aurre egiteko badira psikoheziketeta programak. Autoestimua, elika-

Baina onartze horrek etsipena ere badakar. Borrokatu egin nahi duzu anaia ondo ikusteko. Eginahalak egiten dituzu. Urte mordoak behar izan genuen onarpen horretara heltzeko. Eta bera, Xabier, ez dute uste oraindik onarpen horretara heldu denik. Amañirjina benetan ikusi zuela, bere baitarako benetan aurrez aurre izan zuela sinetsi genuen hasi ginen zer gertatzen ari zitzaion. konprenituz".

dura eta ariketa fisikoa lantzen dira hauen bidez.

Baina zer da ser datze? Kasu askotan, gaixotasuna ez espresatzea lortzen da botikak hartuz.

Eskizofrenia eta droga, bereziki haxixa, sarritan lotu den bikotea. Zain da zeinen ondorio?

Zaila da esatea, baina gero eta jende gehiagok garatzen du eskizofrenia haxixa eta beste zenbait droga kontsumitu ondoren.

Estatistikek diotenez, %1 eskizofrenikoa da. Ez al da larritzeko modukoa? Zuen ospitalean zer dimentsio du gaitz honek, ingresatzen diren-tatik zenbati diagnostikatzen zaio?

Hala da, eta kultura guztietan. Geure ospitalean ingresatzen diren pazienteen berenari gutxi-gutxi horixe diagnostikatzen zaio.

Osasun publikoaren aurrekontuek ere guraizea dute mehatxu nagusi. Nola afektatzen dizue zuei, psikiatroi? Eta eskizofreniari edo halako gaitz kronikoei dagokionez, zer ondorio izango ditu?

Programa berri bat da bidean, eta guraizea sartu beharrean, badiraci balabideak izango ditugula. Beraz, egoera hobetzea espero dugu. Behintzat, nire horretan ari gara lanean.

ESKIZOFRENIA

Erorialdiak

Gaixotasunak duen alderdirik latzenetako bat, egia da Idoiarer ustez, sistema bera. “Krisiak ikusi egiten dituzu etortzen. Badatuzela badakizu, eta ezin duzu ezer egin. Zure irucipona besterik ez bada, frogarik ez baduzu, ezin duzu gaixoa ingresatu ezaten eskatu. Inork ez ditu kasirik egiten, ez bada epailearen aginduz, baina epaileak ez du ezer egingo salaketarik ez badago. Ezin duzu zerbitzu sozialetara jo, arriskuetsua ez den artear. Arazoa zurea da dena”. Xabierren familiak gizarte-laguntzailearen bidez

nahitazaten zuten salaketa bideratu, “ez guk jarrita”, nabarmendu du Idoiak, “Xabierrek ikus baitezake salaketa, eta hori besterik ez zuen behar, guk salatu genuela jakitea”.

“Hura ingresatu nahia ez zen harer heldur ginelako –jarraitu du–, baizik eta baxestu nahi geruzalaz, eta baita jendea ere. Xabier oso kalekumea baita, beti kalean, beti jende artean. Kalean bizi da eta kalea bizi du”.

Azken krisialdian aitzora eskutiar zuela itera zuten herriko plazara. Jende askok ikusi zuen horrela –3.500 biztarle inguru dituen herri batean bizi da–. “Itxusia da horrela esatea, baina hura salbazioa izan zen”, diosku Idoiak. “Egoera hura onera etor zedin erantzainak elortu ziren, eta horren ondorioz epaileak Xabier ingresatzeko agindua eman zuen. Gero okupazio-terapiari hasi zen, eta berriro medikatzen. Terapiar dagoen bitartean amak ordu harzuetako hakes du. Bestalde, Xabier askoz zainduago dago, familiakoek ez ezik okupazio-terapiako kide eta laguntzaileek kontrolatzen dute, eta hori ona da”.

“Pentsa liteke, besteláe, Xabier biolentoa dela, beldurra eman dezakeela”, argitu cigu



Craig Finn-ek bere buruari egindako erretratua. Tratamentua hartzen ari deneko unea azaltzen du. Wikipediatik hartua.

zirenak. “Eta ez da inondik ere. Gogo handiago izan dut nik hari min ematekoa, hark niri ematekoa baino”.

Medikazioa

Nahasmena hasi zenetik hona, hamar urte on egin zituen Xabierrek. Eman zioten botikak on egiten zion, odol analisiak egiten zitzioten, eta horien bidez hartzen zituen drogen kontrola ere eramatean zioten. Udalak garbitzaile lanetan jarri zuen. Kasik nostalgiaz gogoratzen du bolaca hura Idoias. “Ilalako batean kendu egin zioten botika hura, eta akasbo. Gibela kalretzen omer zuten”.

Orain hartzen duen botikak sekulako ezinngona sortzen dio, eta jatko gogo ikaragarria, ezin inolaz ase. “Medikamentu batzuek sekulako dardara jartzen dute, oinak ezin geldirik eduki. Nabarmena da gaitera. Eskizofrenia duen ezagunen bat seko puztuta ikusten duzunean baxalazu, botikak hartzen hasi dela, berehala jabetzen zara hori ez dela gizentze normala”.

Medikamenturik gabe, ordea, arunt okerrago. “Oso gogorra da haientzat horrela bizitzea, ondorio txar horiek denak paratzea, baina botika horiek gabe berehala hasten dira paranoiak eta gainerako sintomak”. Ez dago, oraingoz, besterik.

Idoias, zaintzaileek eta buru gaitzetan adituek esango luketen bezala, Xabierri asko lagundako like lanak. Ez du, ordea. Amak ditu harelako arduraguziak. Haren zaintzarik gabe ezingo luke aurrera egin. Izatez, ez du ezta laguntza kronomikorik ere, dependetzia legeak ez baititu horrelako kasuak bere baitan hartzen. ■



gure artean euskaraz

lagunekin euskaraz

Interneten ere bai!

mobiletik euskaraz

Nor nahi zcazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Euzko Foru Alderdiak
Diputación Foral de Bizkaia

ULTZAMA

Haurrak ari dira galdutakoa berreskuratzen

XX. mende hasieran ultzamarrak elebakarrak ziren.

2001. urtean erdiek zekiten euskara, helduenek eta gazteenek. Azkar galdu da euskara Nafarroako udalerrri honetan. Manto soago, baina ari dira berreskuratzen.

SAIOA LABAKA

Argazkia: Argazki Press

NAFARROAKO ipar-mendebaldean dago Ultzama udalerrria, Iruñetik 25 kilometrora. Hamalau herrigunek osatzen dute: Ilarregi, Suarbe, Eltzaburu, Auza, Larraintzar, Lizaso, Gorrontz-Olano, Iraitzotz, Alkotz, Arraitz-Orkin, Zenotz, Eltso, Gerendain eta Urritzola. Bailarako herriburua Larraintzar da; haraneko erdigunean dago eta bertan daude zerbitzu gehienak: udaletxea, ikastetxe publikoa, osasun etxea, kiroldegia eta abar. Ultzaman 1.600 lagun inguru bizi dira gaur egun. Herriak oso txikiak dira, harrizko etxe sendoz osatuak, biztanle gutxiak, eta bailara osoan sakabanaturik daude.

Ultzama Nafarroako zonalde euskaldunetan dago, euskara ofiziala den eremuan. Euskara da bailarako jatorrizko hizkuntza, eta XX. mendera arte ingurua euskaldun elebakarra izan zen. Miquel Gros i Lladós soziolinguista katalanak 2007an *Recuperación del euskera en Navarra* liburua argitaratu zuen, Euskaltzaindiaren eskutik. 1986tik Nafarroan euskarak izan duen bilakaera, gaur egun duen egoera eta aurreikus daitekeen etorkizuna aztertu zituen. Egileak 1950etik aurrera Ultzamak bizi izandako ordezkatzeko prozesu bizkorra nabarmentzen du. Hizkuntza ordezkapena nola gertatzen den egiaztatzeko adibide garbitzat jotzen du Ultzamako kasua. Grosen ustez, bailarako egungo haurren euskalduntzeak ez du oraindik galera hori ordezkatzetik lortu. Era berean, belaunaldi batekin egoerari buelta emateko aukera egon



LARRAINTZAR IKASTETXEA

Euskararen galtze prozesua gelditzea lortu dute bailaran. Orain belaunaldi berriek dute giltza, euskara eskolan ikasi dutenek, baldin eta gizarte eremu orotara zabaltzen badute hizkuntza. Argazkian Ultzama bailarako Larraintzar ikastetxe bakarreko ikasleak.

badagoela ere gaineratzen du, baina erabilera azpimarratzen du euskarak irateko bide bakar gisa. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen barnean dago Ultzama aldeko Euskara Zerbitzua; eta Ultzama aldean, hain zuzen ere, Ultzama, Imotz, Basaburua, Odieta, Atez, Lantz eta Anue sartzten dira. Bertako teknikariak egoera orokor honen argazki bertsua ateratu digu.

2001ean Ultzama bailarako euskaldunen kopurua %49koa zen. Euskarak atzera egin izana bizimodua aldatzearen eta modernizazioaren

ondorioa da, besteak beste. Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarrituriko gizartea izateari utzi, eta hiriburura jo zuen nagusiki Ultzamako jendeak, industriaren eta zerbitzuen sektoreetan lan egitera. Hiriburua gertutasuna eragile garrantzitsua izan da nolabait hizkuntzaren ordezkatzeko prozesuan. Gaztelaniak erraz lortu zuen berez euskararenak ziren erabilera eremuetan sartzea: familian, lagunartean, herrian... Euskarak, berriaz, ez du bide erraza izan gaztelaniarenak diren eremuetan aurrera egiteko: administrazioan, kulturean eta abar.

Hiriburuaren gertutasuna eragile garrantzitsua izan da hizkuntzaren ordezkatzeko prozesuan

Herriatik herrira alde handia

Ibarreko herrien artean alde handiak daude euskararen kontserbazioari dagokionez. Esaterako, Basaburutik gertu dauden herrietan ia biztanle gehienak dira euskaldunak: Alkotzen, Auzan, Eltzaburun... Beste herri batzuetan, aldiz, euskarak nabarmen egin du atzera 36ko gerraz geroztik: Larrainzarren, Lizason, Arraitzen... Herri batetik bestera kilometro gutxi dago, eta soziologikoki berdintsuak dira, baina kanpo faktoreek eragin ezberdina izan dute herririka bakoitzean. Esaterako, toki batzuetan eragin zuzena izan zuten apaizek, irakasleek eta gizartearen garrantzi handia zuten pertsonak. Horietako askok ez zekiten euskaraz, kanpotarrak zirelako Beste batzuk, euskaldunak izanagatik ere, euskararen kontra aritu ziren arrazoi ideologikoengatik. Hala, herri bakoitza gune berezia da.

Ultzaman euskaldun gehienak bi muturretako belaunaldietakoak dira: adinekoak eta haurrek, nagusiki. 25-50 urte bitarteko adin taldea da, bestalde, erdaldunena. Hain zuzen ere, talde dinamikoena da multzo hori, eta eragin handiena duena hizkuntza jarrerak finkatzean. Halere, gurasoek D ereduaren aldeko jarrera erakutsi dute, oro har. Bidenabar, irakaskuntzak ere euskararen alde jokatu du. Ultzamako Larrainzar ikastetxe publikoak D eredia soilik eskaintzen du, eta hiru

Euskara sustatzeko zailtasunak

Ultzama aldeko euskararen alde lan egiten ari den eragile garrantzitsuen Ametza Kultur Elkarteak da. Euskarazko tokiko hedabideei babesa emateko sortu zen, 1996. urtean. Esan-Erran irratia eta *Pulunpe* aldizkaria dira bailarako euskarazko hedabide bakarrak. Ametza elkarteak kultur jarduerak eta euskara sustatzeko ekimenak ere egiten ditu. Elkartearen jarduerak bost multzotan biltzen dira, eta honako hauek dira: haur eta gazteei zuzendutakoak, hedabideak, kultur arlokoak, entitateak euskalduntzeko egitasmoak eta mintza-praktikakoak.

Esan-erran irratia eta *Pulunpe* aldizkaria egoera larrian daude, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak murriztu direlako. Gainera, Ultzamako Udalak ez dio dirulaguntzarik ematen Esan-Erran irratitari, euskara hutsez emititzen denez, erdaldunak bartzertzen dituela argudiatuta. Batez ere, Ametzako bazkideen, Kontzejuen eta inguruko bailaretako udalen ekarpenei esker mantentzen da oraingoz. Diru-iturri berriak bilatuz eta gastuak gutxituz, euskara sustatzen jarraitzeko asmo garbia daukate bertako langileek, maldan gora bada ere.

etapak biltzen ditu: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Aurten 236 ikasle dituzte ikastetxean. Horrek guztiak nolabait ziurtatzen du belaunaldi berriek, haur eta gazte gehienek, euskara ikasiko dutela. Dena

ratu izan ditu Ultzamako Euskara Zerbitzuak, ikastetxean abian jartzeko. Izan ere, euskalkia ahulduta dago, batik bat, gazteen artean. Helduen euskalduntzeari dagokionez, berriz, Larrainzarren AEK euskaltegia dago. Egun, 43 ikasle daude matrikulaturik, lau taldetan. Euskaltegiaren lanari esker, ares-tian aipaturiko belaunaldi erdaldunean nolabaiteko zubia sortzen ari da. Azken urte hauetan Ultzamako ibarrean errekuertzen ari da euskara pausoz pauso, eta gelditu da hizkuntzaren galtze prozesu hori. Belaunaldi berriak izango du egoerari buelta emateko giltzarria, eskolan ikasitako euskara harreman eta funtzio sozial guztietarako ahotan badarabil. ■

Euskara datuak Ultzaman

Euskaldunak (%)	1986	1991	1996	2001	
	%50,3	%44,0	%47,6	%49,0	
	Guztira				
	<15 urte	15-25 urte	25-50 urte	>50 urte	
Euskaldunak 1991n	%44	%44,9	%11,4	%28,4	%71,3
Euskaldunak 2001ean	%49	%72,9	%67,1	%26,6	%49,2

Iturria: Miquel Gros i Lladós; *Recuperación del euskera en Navarra*; 2007. 1986, 1991, 1996 eta 2001eko erroldetatik ateratako datuak.

den, euskararen erabilera da erronka nagusia; bailaran bermatu beharrekoa da, eta ez da behar bezain azkar errekuertzen ari.

Horrez gain, Ultzamako hizkera indarberritzeko egitasmoak plaza-

zesu hori. Belaunaldi berriak izango du egoerari buelta emateko giltzarria, eskolan ikasitako euskara harreman eta funtzio sozial guztietarako ahotan badarabil. ■

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua



Errenteriako Udala
euskarazko komunikabideen alde

